# Xedapen Orokorrak

## GARRAIO ETA HERRI LAN SAILA

### Zk-6214

AGINDUA, 2001eko irailaren 19koa, Garraio eta Herri Lan sailburuarena, Eusko Trenbideak–Ferrocarriles Vascos, SAren Zirkulazio eta Seinaleen Arautegia onartzeko dena.

Abuztuaren 25eko 2488/1978 Dekretuaren bidez, Espainiako Administrazioak Euskal Kontseilu Nagusiaren esku utzi zituen abenduaren 30eko 44/1975 Legean arautukako eskumenak eta FEVEk Euskadin ustiatutako trenbide zerbitzuak. Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutua onartu zuen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak Euskal Autonomia Erkidegoari eman zion, 10.32 artikuluan, ibilbide osoa Euskal Autonomia Erkidegoan egiten duten trenbideen alorreko aginpide esklusiboa, eta, hortaz, aldi baterako xedapenetan bigarrenak ezarritakoaren arabera, Estatutua indarrean sartzean Erkidegoak behin betiko hartu zituen bere gain autonomia aurreko aldian transferitutako aginpideak.

Maiatzaren 24ko 105/1982 Dekretuaren bidez Eusko Trenbideak, SA sortu eta haren estatutuak onartu ziren, eta urtarrilaren 25eko 56/1994 Dekretuaren bidez aldatu egin zen Dekretu hura, besteak beste, honako hau duelarik helburu soziala: Pertsona eta salgaien trenbidezko eta errepidezko garraio publikoa ustiatzea, bai abuztuaren 25eko 2488/1978 Dekretu bidez eta abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez transferitutako lineei dagozkiena, bai Dekretu bidez eskatzen zaizkionak, bai eta zerbitzu horiekiko emakida eman edo baimenduriko beste edozein garraio zerbitzu publiko eta kable bidezko garraioa.

Garraio eta Herri Lan sailburuaren 1996ko irailaren 24ko Agindu bidez, eta Eusko Trenbideak, SAk hala proposatuta, Eusko Trenbideak, SAren Zirkulazio eta Seinaleen Arautegia onartu zen, Lurreko Garraioak Antolatzeko Legearen Arautegia onartzen duen irailaren 28ko 1211/1990 Errege Dekretuaren 264.1 eta 279.1 artikuluetan xedatutakoa betetzeko.

1999ko apirilaren 13ko Agindu bidez, berriz, Garraio eta Herri Lan Sailak Arautegi horren zenbait artikulu aldatzea onartu zuen, Lurreko Garraioak Antolatzeko Legearen Arautegia onartzen duen irailaren 28ko 1211/1990 Errege Dekretuaren 264.1 eta 279.1 artikuluetan xedatutakoa betez.

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS

### N°-6214

ORDEN de 19 de septiembre de 2001, del Consejero de Transportes y Obras Públicas, por la que se aprueba el Reglamento de Circulación y Señales de Eusko Trenbideak – Ferrocarriles Vascos S.A.

Por Decreto 2488/1978, de 25 de agosto se transfirieron de la Administración del Estado al Consejo General del País Vasco las competencias reguladas en la Ley 44/1975, de 30 de diciembre, así como los servicios ferroviarios explotados por FEVE en territorio del País Vasco, viéndose afectada posteriormente tal disposición por el Estatuto de Autonomía para el País Vasco que confirió a la Comunidad Autónoma en el artículo 10.32 la competencia exclusiva en materia de ferrocarriles que transcurran íntegros por la Comunidad Autónoma, quedando, conforme a la disposición transitoria segunda, asumidas con carácter definitivo las competencias transferidas en período preautonómico.

Por Decreto 105/1982, de 24 de mayo, modificado por Decreto 56/1994, de 25 de enero, se creó la sociedad pública «Eusko Trenbideak / Ferrocarriles Vascos, S.A.” y se aprobaron sus estatutos, teniendo como objeto la citada sociedad, entre otros, la explotación del servicio de transporte por ferrocarril y carretera de personas y mercancías, tanto de las líneas transferidas a la Comunidad Autónoma de Euskadi por Decreto 2488/1978, de 25 de agosto y por Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, como aquellos otros que se le encomienden por Decreto, concedan o autoricen respecto a dichos servicios o el de transporte por cable.

Por Orden de 24 de septiembre de 1996, del Consejero de Transportes y Obras Públicas, y a propuesta de la sociedad pública Eusko Trenbideak / Ferrocarriles Vascos, S.A., se aprobó el Reglamento de Circulación y Señales de Eusko Trenbideak / Ferrocarriles Vascos, S.A., en cumplimiento de lo dispuesto en los artículos 264.1 y 279.1. del Real Decreto 1211/1990, de 28 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley de Ordenación de los Transportes Terrestres.

Posteriormente, por Orden de 13 de abril de 1999, del Consejero de Transportes y Obras Públicas, se aprobó una modificación del citado Reglamento, en cumplimiento de lo dispuesto en los artículos 264.1 y 279.1. del Real Decreto 1211/1990, de 28 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley de Ordenación de los Transportes Terrestres.

Zirkulazio eta Seinaleen Arautegi hori aplikatzean izandako eskarmentuak, eta arautegi hori Eusko Trenbideak, SAk kudeatzen dituen trenbidezko garraio-zerbitzuak ustiatzeko egungo baldintzetara egokitu beharrak ordea, beharrezko egiten du, sozietatearen proposamenaren arabera, onartu zenez geroztik egindako aldaketak jasoko dituen arautegi berri bat onartzea.

Ondorioz, Garraio eta Herri Lan Sailaren egitura eta egitekoak finkatzen dituen urtarrilaren 18ko 10/2000 Dekretuaren 3. artikuluaren arabera dagozkidan eskumenak erabiliz,

XEDATU DUT:

*Artikulu bakarra.*– 1.– Eusko Trenbideak, SAren Zirkulazio eta Seinaleen Arautegia onartzea. Arautegia I. eranskinean dator.

2.– Arautegi hori Eusko Trenbideak, SAri ustiatzeko agindutako trenbideko garraio lineetan erabiliko da, bai eta etorkizunean ustiatzeko agintzen zaizkionetan ere.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrik gabe geratzen dira Eusko Trenbideak, SAren Zirkulazio eta Seinaleen Arautegia onartzen duen Garraio eta Herri Lan sailburuaren 1996ko irailaren 24ko Agindua, Agindu hori aldatzen duen Garraio eta Herri Lan sailburuaren 1999ko apirilaren 13ko Agindua, eta Agindu honetan ezarritakoaren kontrakoak edo horrekin bateraezinak diren lerrun bereko edo baxuagoko xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko irailaren 19a.

Garraio eta Herri Lan sailburua,
ÁLVARO AMANN RABANERA.

Ale Gehigarri bereizian argitaratzen dira aipatutako zerrendaren Eranskinak

La experiencia derivada de la aplicación del citado Reglamento de Circulación y Señales y la necesidad de adecuar el mismo a las actuales condiciones de explotación de las líneas de transporte por ferrocarril gestionadas por Eusko Trenbideak / Ferrocarriles Vascos, S.A., ha motivado la conveniencia de aprobar un nuevo reglamento, que incorpore las modificaciones realizadas al mismo desde su aprobación, a propuesta de la citada sociedad.

En su virtud, y en ejercicio de las competencias que me corresponden conforme al artículo 3 del Decreto 10/2000, de 18 de enero, de estructura orgánica y funcional del Departamento de Transportes y Obras Públicas,

DISPONGO:

*Artículo único.*– 1.– Aprobar el Reglamento de Circulación y Señales de Eusko Trenbideak – Ferrocarriles Vascos, S.A., cuyo texto se acompaña como Anexo I.

2.– Dicho Reglamento se aplicará a las líneas de transporte por ferrocarril cuya explotación esta encomendada a la sociedad pública «Eusko Trenbideak / Ferrocarriles Vascos, S.A.», así como a cualquier futura ampliación de las mismas.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogada la Orden de 24 de septiembre de 1996 del Consejero de Transportes y Obras Públicas por el que se aprueba el Reglamento de Circulación y Señales de Eusko Trenbideak / Ferrocarriles Vascos, S.A y la Orden de 13 de abril de 1999 del Consejero de Transportes y Obras Públicas, de modificación de la Orden por la que se aprueba el Reglamento de Circulación y Señales de Eusko Trenbideak / Ferrocarriles Vascos, S.A., así como cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan, contradigan o resulten incompatibles con las determinaciones de la presente Orden.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 19 de septiembre de 2001.

El Consejero de Transportes y Obras Públicas,
ALVARO AMANN RABANERA.

En Suplemento aparte se publican los Anexos de la relación que se cita